

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Mari Zinkunegi Agirre

*Lizartza,
Gipuzkoa
(1932)*

Aurkibidea



Biografia



"Kalen erdin" jaioa,
Ezcurranean bizitu zen
ondoren. 25 urte zituela
Sagrario Soroarekin ezkondu
eta Gogorzanera joan ziren
maizter. Handik, plaza ingura
joan zen bizitzera. Hainbat
lantoki ezagututakoa da.
Gaztea zela morroi lanetan
aritu zen 15 urte bete arte;
'Insalus'-en, lima fabrikan eta
'Araxes' paper-fabrikan
ezagutu zituen ondoren.
Gizon polifazetikoa inondik
inora, soinujole bikaina eta
bertsolari aparta, bertsoak
osatzen ezezik, 'Txirrita' eta
'Uztapide'-ren hamaika bertso
gogoan ditu oraindik. Hala
kontatu eta kantatu digu
berak bizitakoak bere anaia
[Julian](#)ekin batera.

Zintak

LIZ-004

- **Proiektua:** Lizartzako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Data:** 2011-10-19
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

LIZ-005

- **Proiektua:** Lizartzako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Data:** 2011-10-19
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Eskolan hotza pasatakoak

- **Erref:** LIZ-004/004
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:06:48. **Bukatu:** 00:09:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Julian sei urterekin hasi zen eskolan; Joxe Mari, berriz, bostekin... anaiak engainatuta. Negu garaian, hotza pasatzen zuten eskolan. Maisuak brasa jartzen omen zuen balde batean... bere burua berotzeko. Ikaskide batzuk maisuari brasatara pipermina bota ziotenekoak kontatzen dute. Ez zuten aterkirik; buruan zapatua jarrita ibili ohi ziren.

2. Neskak ea mutilak ezin elkarrekin ibili

- **Erref:** LIZ-004/005
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:09:04. **Bukatu:** 00:11:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Lizartzako eskola gaur egun udaletxea dagoen tokian zegoen. Mutilek beheko solairuan ikasten zuten, eta neskek, berriz, goian. Eskaileretan, jolas-orduan... ere aparte ibili behar izaten zuten. Neskekin soka-saltoan egiteagatik zigorrarekin belarrietan jo omen zuen apaizak Joxe Mari.

3. Eskolara berandu joanez gero...

- **Erref:** LIZ-004/007
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:13:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Eskolara joan aurretik, esnezaleari esnea erosi behar izaten zioten. Hura berandutzen bazen, eskolara berandu iristen ziren eta maisuak zigorrarekin jotzen zituen. Lehen, gurasoek ez zuten zalantzan jartzen maisuaren jokabidea.

4. Euskaraz egitea galarazita

- **Erref:** LIZ-004/008
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:13:23. **Bukatu:** 00:14:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskolako kontuak. Maisua Logroñokoa zen, eta ez zekien euskaraz; eskolan galarazita zuten euskaraz hitz egitea.

5. Soldadutzako gorabeherak

- **Erref:** LIZ-004/009
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:14:05. **Bukatu:** 00:16:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gaztelaniaz hitz egiten justukoa ikasi zuten. Julianek Burgosen egin zuen soldadutza; Joxe Marik Donostian. Hizkuntza zela eta soldadutza zer gorabehera izan zituzten kontatzen dute. Julianen soldadu lagun gehienak euskaldunak ziren, eta euskaraz hitz egiten zuenari eraztuna ematen zioten zigor moduan. Hemengo soldaduek diru gehiagoa izaten zuten ordu libretan gastatzeko. Etxekoek bidaltzen zien dirua.

6. Soldadutzara, etxeko jatekoarekin

- **Erref:** LIZ-004/010
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:16:17. **Bukatu:** 00:17:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Joxe Marik Donostian egin zuen soldadutza. Arreba bat Martutenen bizi zen, eta harengana joan ohi zien joateko bila. Asteazkeneko jatekoa eramaten zuen, eta horrela diru gutxiago gastatu zuen soldadutza.

7. Insalustik atera soinua jotzeko

- **Erref:** LIZ-004/013
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:18:33. **Bukatu:** 00:20:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Tolosaldeko lantegiak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Lehen, dirua etxean, patrikan... gordetzen zen. Joxe Marik 16 urte zituela Insaluden lanean hasi eta kartila ireki zuen aurrezki kutxa nagusiak esanda. Lana utzi egin zuen ez ziotelako baimenik ematen soinua jotzera joateko. 19 urtera arte ibili zen soinua jotzen. Gero, adinagatik lanik bilatu ezin eta aitarekin basolanean hasi zen.</p>

8. Amari dirua entregatu behar

- **Erref:** LIZ-004/015

- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:26:11. **Bukatu:** 00:29:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Lanean irabazitako dirua amari entregatu behar izaten zioten. Zer lan eta zer jornal irabazten zituzten aipatzen dute. Astero, ostiraletan jasotzen zuten jorna. Julianek hamar egunetik hamar egunera ere jaso izan zuen jorna.

9. Bi pezeta karamelutarako

- **Erref:** LIZ-004/016
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:30:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Gaztetako ibilerak. Bi anaiak Orexara edo Gaztelura joaten ziren festetan, eta bientzat bi pezetakoaren joaten omen ziren. Ez zuten dirurik gastatzen etxera joateko garaia iritsi arte; orduan, pastelak edo karameluak erosten zituzten. Bakoitzak bana jan eta besteak etxekoentzat gordetzen omen zituzten.

10. Orexako festak

- **Erref:** LIZ-004/018
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:30:19. **Bukatu:** 00:30:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Orexako festei buruz hitz egiten dute. Soinujole bat izaten zen festetan: Berastegiko Pakito aipatzen dute. Joxe Mari ere soinua jotakoa da Orexako festetan.

11. Festetan, soinujoleak eta ttunttuna

- **Erref:** LIZ-004/019
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:30:55. **Bukatu:** 00:32:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Joxe Mari soinua jotzen ibilia da. Lizartzako festetan, herriko gazteek bi

soinujole jartzen zituzten: Joxe Mari eta Manolo. Herriko gazteek ordaintzen zuten soinujolea; zerrenda bat egoten zen gazteen izenekin eta bakoitzak 11 pezeta ordaindu behar izaten zituen. Ttunttuna ere izaten zen; hori herriak ordaintzen zuen.</p>

12. Soinua esnezalearekin bidali...

- **Erref:** LIZ-004/020
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:32:41. **Bukatu:** 00:33:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Orexara, Gaztelura... soinua jotzera joan behar zuenean oinez joaten zen. Soinua esnezalearekin bidaltzen zuen. Soinua bizkarrean hartuta ere joana da.

13. Kaxiano, 'Kaxa'

- **Erref:** LIZ-004/023
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:34:10. **Bukatu:** 00:37:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Kaxianori buruz hitz egiten dute. Nolako gizona zen, zer harreman zuten...

14. Neskatako gorabeherak

- **Erref:** LIZ-004/026
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:43:03. **Bukatu:** 00:44:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Neskatako kontuak. Gaztetan, ez omen zen ausartzen Neskengana joaten. Emaztea nola ezagutu zuen kontatzen du: morroi zegoen baserriko etxeko andrearen ahizpa zen. 17 urterekin hasi ziren nobio moduan. Soinujole moduan ibiltzen zenean neskatan egiteko aukera izaten omen zuen.</p>

15. Ilunabarra, neskarekin dantzatzeko garaia

- **Erref:** LIZ-004/028
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 00:45:34. **Bukatu:** 00:50:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Neskatako kontuan. Ilunabarrean, erromeriako azken pieza neskaren batekin dantzatzeko momentua aproposa izaten omen zen. Neska-laguntzea: 14 urterekin 16 urteko neskari etxera lagundu zionekoa. Emakumeen janzkerari buruzko aipamena.

16. Emakumeen janzkera

- **Erref:** LIZ-004/029
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:50:08. **Bukatu:** 00:51:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Lehen, emakumeek belaunetik beherako gonarekin ibili behar izaten zuten. Orduko pentsakeraren eragina.

17. Artilea

- **Erref:** LIZ-004/032
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:55:43. **Bukatu:** 00:56:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Garai batean, artileak estimazio handia izan zuen. Artile kiloa 22 duron saldutakoa omen da Julian. Joxe Marik, berriz, koltxoia berritzeko artile kiloko 20 duro ordaindu omen zuen. Ardi-mozten guraizeekin aritzen ziren.

18. Traperoa eta artilea

- **Erref:** LIZ-004/034
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:57:06. **Bukatu:** 00:59:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Traperoak etxez etxe ibiltzen ziren, eta haiei saltzen zien artilea. Traperoek denetik erosten zuten: artilea, arropa zaharra, tomate poteak, abarka zaharrak... Artilearekin mantak, berokiak, sokak... egiten ziren. Lehen artileak estimazio handia zuen: lehengo prezioa eta gaur egungoa alderatzen dute.

19. Haria egitea

- **Erref:** LIZ-004/035
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:59:54. **Bukatu:** 01:00:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Emakumeak aritzen ziren artilearekin haria egiten. Haria nola egiten zen azaltzen du Joxe Marik. Haria egiteko tresna: txaratila. Etxean egindako artilezko galtzerdiak "ederrak izaten ziren".

20. Arropa faltan

- **Erref:** LIZ-004/036
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:00:58. **Bukatu:** 01:02:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Garai bateko arropa segituan hausten omen zen. Lantegirako arropa etxetik eraman behar izaten zuten. Soldadu garaian, arropa harrapatzen ibiltzen ziren etxerako.

21. Ardi-esnea

- **Erref:** LIZ-004/037
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:02:29. **Bukatu:** 01:04:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Egunean bitan jezten zituzten ardiak, goizean eta iluntzean. Oraingo ardiek esne gehiago ematen dutela diote Zinkunegi anaiek. Ardi-esnearekin gazta egiten zuten.

22. Gazta egiteko prozesua

- **Erref:** LIZ-004/038
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 01:04:25. **Bukatu:** 01:08:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Ardiak eskuz jezten zituzten. Gazta nola egiten zuten azaltzen du. Kilo bateko gazta egiteko zazpi litro esne behar izaten ziren. Behi-esnearen eta ardi-esnearen arteko aldea: ardi-esnea lodiagoa izaten da, sebo gehiago izaten du.

23. 15 urterekin, 'Insalus'en lanean hasi

- **Erref:** LIZ-004/042
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 01:10:20. **Bukatu:** 01:14:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Tolosaldeko lantegiak

Laburpena:

<p>'Insalus' lantegian lanean nolatan hasi zen kontatzen du. 15 urtetik 18 urtera arte egin zuen lana bertan. Lanean hasi zenean, 15 pezetako jornala zuen. 'Insalus'en zer lan egiten zuen azaltzen du.</p>

24. 'Araxes' paper-lantegia

- **Erref:** LIZ-005/003
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:02:08. **Bukatu:** 00:06:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Tolosaldeko lantegiak

Laburpena:

<p>'Araxes' paper-lantegiko kontuak. Joxe Mari 23 urtekin hasi zen lantegi horretan lanean. Julian, berriz, 14 urtekin hasi zen. Trapu zahar, zaku, soka... erabiltzen ziren papera egiteko. Trapua sailkatua egiten zen (kolore eta tramu motaren arabera). Lana nola egiten zuten azaltzen dute.</p>

25. Paper-lantegiko kontuak

- **Erref:** LIZ-005/004
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:08:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

Laburpena:

'Araxes' paper-lantegiko kontuak. Gerra ondoren, pastarekin hasi ziren papera egiten. Lantegiaren mendeurrena. Inguruko herrietako jende asko aritu zen lantegi horretan lanean.

26. Instrukzioak

- **Erref:** LIZ-005/006
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:11:04. **Bukatu:** 00:12:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denborako oroitzapenak. Erreketeek instrukzioak irakasten zizkien plazan, eskolatik atera eta gero. "Txapel gorriak".

27. Errazionamenduko ogia

- **Erref:** LIZ-005/007
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:12:11. **Bukatu:** 00:14:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errazionamenduko ogia: beltza, gogorra eta biribila izaten zen. Esnetan txiki-txiki eginda jaten zuten ogia.

28. Euskara gutxietsia

- **Erref:** LIZ-005/008
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:14:34. **Bukatu:** 00:15:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskolan euskara debekatuta. Euskaraz jakin eta ez hitz egiteko joera omen zegoen. Tolosara neskame joaten ziren neskek erderaz egiteko ohiturarekin bueltatzen ziren herrira. "Caseros tontos" esaten omen zien.

29. 'Frente de juventudes'

- **Erref:** LIZ-005/009
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:15:21. **Bukatu:** 00:16:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Tolosako 'Frente de Juventudes'. Orduko giroa. Falangistek euskaldunak gutxietsi egiten zituzten.

30. Euskararekiko sentimendua

- **Erref:** LIZ-005/010
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:16:47. **Bukatu:** 00:19:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

Aurreneko hitza euskaraz egiteari buruz hitz egiten dute. "Euskarak ez du maldiziorik". Komunio handia egiten eta gero eskean aritzen ziren, kantuan. Abestu egiten dute.

31. "80 urten ingurun gaude..." bertsoak

- **Erref:** LIZ-005/011
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:19:02. **Bukatu:** 00:23:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

"80 urten ingurun gaude..." bertsoak kantatzen ditu Joxe Marik. Bertsozaletasuna lehen eta orain. Bertso-giroa festetan.

32. Apaiza eta alkatea bertso-saioak zaintzen

- **Erref:** LIZ-005/012
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:23:27. **Bukatu:** 00:26:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Joxe Mari eta Julian mutil kozkorra zirela 'Zepai' eta 'Uztapide' bertsolariak joaten ziren Lizartzara. Bertsolariek ezin izaten zuten emakumeei buruz egin bertsoan apaiza eta alkatea zaintzen egoten ziren. Basarriren bertso bat abesten du Joxe Marik.

33. 'Uztapide'ren hiru bertso

- **Erref:** LIZ-005/013
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:26:27. **Bukatu:** 00:28:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Uztapideren hiru bertso kantatzen ditu Joxe Marik. Uztapidek, baserritar baten paperetik, harakin bati esandakoak.

34. 'Lazkao Txiki'ren bertso bat

- **Erref:** LIZ-005/015
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:29:45. **Bukatu:** 00:30:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

'Lazkao Txiki'ren bertso bat kantatzen du Joxe Marik. Kontzientziari buruz ari da.

35. Emakumeak, galtzak eta gonak

- **Erref:** LIZ-005/017
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:30:54. **Bukatu:** 00:32:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gazte denboran ez zuten emakume bertsolaririk ezagutu. Emakumeak galtzak janztega gaizki ikusia zegoen.

36. Ikatz zakuak eta pistola

- **Erref:** LIZ-005/018
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:32:36. **Bukatu:** 00:35:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Traperoak latak, trapu zaharrak... biltzen zituen diru truke. Herrian bazen traperoa, nor zen azaltzen dute. Mutikoa zela, zortzi kilo trapuren truke (ganbaran ikatz zakuak biltzen aritu zen), pistola hartu zuenekoak kontatzen du Joxe Marik.

37. Umetako jolasak

- **Erref:** LIZ-005/019
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:35:20. **Bukatu:** 00:36:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Jolas "baldarretan" ibiltzen ziren: gurdiaekin, gerraketan, harrika, gordeketan... Alpagatak ez hausteko, hanka-hutsik ibiltzen ziren pilotan.

38. Erlojua eta etxeratzeko ordua

- **Erref:** LIZ-005/022
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:39:13. **Bukatu:** 00:41:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Joxe Marik 19 urterekin erosi zuen erlojua Tolosako 'Esmeralda'n. 375 pezeta ordaindu zituen erlojuagatik. Mutilei ez zien etxeratzeko ordurik jartzen; emakumeei, berriz, bai. Gaizki ikusia zegoen behin eguna ilunduta neskak kalean ibiltzea.

39. Janzkera: galtza bizkaitarrak

- **Erref:** LIZ-005/024
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:43:51. **Bukatu:** 00:47:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Lehenengo bizimodua eta oraingoa alderatzen dituzte: orain libertade handiagoa dago. Arropa aukera gutxi izaten zen. Gabezia: alkandora bakarra. Galtza bizkaitarrak janzten zituzten. Gantzontziloak, alkandora, kamiseta...

40. 14 urterekin gaua kartzelan pasatu

- **Erref:** LIZ-005/027
- **Iraupena:** 0:05:43. **Hasi:** 00:49:18. **Bukatu:** 00:55:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

14 urterekin, morroi zegoela, kartzelan sartu zuten Joxe Mari (beste lagun batekin batera) arrantza egiteagatik. Donostiako Ondarretako espetxera eraman zuten bost egunerako, baina aita hurrengo egunean atera zuen handik. Ziega nolakoa zen azaltzen du.

41. Kartzelako egonaldia

- **Erref:** LIZ-005/028

- **Iraupena:** 0:08:07. **Hasi:** 00:55:01. **Bukatu:** 01:03:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

14 urterekin, morroi zegoela, kartzelan sartu zuten Joxe Mari (beste lagun batekin batera) arrantza egiteagatik. Donostiako Ondarretako espetxera eraman zuten. Espetxean, ezer ulertuko ez balu bezala egiten zuen Joxe Marik, lehenago askatuko zutelakoan. Jatekoari uko egiten zion. Sukaldaria eraman zioten ziegara euskaraz egin ziezaion, baina Joxe Marik dena ulertzen zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-31

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com